

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko apirilaren 20a. IX. urtea. 2.395. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Emanaldi berezia antolatu du Santa Mariako kaperak

Tolosako musika taldeak Garcia Artetxe, Zeberio, Egizabal, Letamendia eta Arcellus lankide ohiak omenduko ditu igandean ◯3

## Villabonan osasun publikoaren aldeko mozioa onartu dute

Azken osoko bilkuran Olaederra kiroldegia Villabona eta Zizurkilen artean kudeatzearen alde ere egin zuen udalbatzak ◯6

## XIV Orduetarako gomendioak, fisioterapeuta baten eskutik

Proba egiterakoan garrantzitsuena «buruarekin jokatzea» dela esan du ◯4

## Olasagasti eta Zalduaren arteko apustua, etzi, Tolosan

Saioa zezen plazan izango da, 12:00etan; 1.000 bat ikusle espero dituzte ◯7



I. GARCIALANDIA

→ **Bizimoduaren eragina, naturan.** Naturaldia jardunaldien aurkezpena egin dute Shole Martin antolatzaileak, Hasier De los Rios Tolosako Udaleko zinegotziak eta Ainhoa Iraola foru aldundiko Ingurumen saileko zuzendariak. Ekitaldiak astelehenean hasiko dira *Ez gara merkantziak* izenburupean, eta pertsonen bizimoduak planetarengan zein izaki bizidunengan duen eragina aztertuko dute. ◯2



## Ezagutu Zuntzaren indarra

**10Mb-ko DUOa**

+ Finkoetarako deiak, 24 orduz,

Alta (99€) eta instalazioa **DOAN**

Helmen handiagoko Wifi N Kable-modema, **abiadurik handienarekin, DOAN**

Mugikorra gurekin baduzu, Internet zure mugikorrean **DOAN** eta **BETIKO**

**19'9**  
€/hil  
urtebetez

Sutapen hau 2012/05/16 baino lehen egiten diren zuntz bidezko 10Mb-ko DUOaren konfigurazioei aplikatuko da. 10Mb-ko DUOaren konfigurazioei aplikatuko da. 10Mb-ko DUOaren hileko kuota 12 hilebetez, aktibazioaren denetik hasita, 12 hilebetez iraunkor konpromisoa. Batez beste baimo lehen emateagatik 15€-ko zordunketa egingo da bete gabeko hilebete bakoitzeko. Zuntz Oplikoaren instalazio berrientzat soilik da dagoen ala. Linea ez dago berriz. Euskaltelen Telefonía Mugikorreko abantaila bat da. Asteigun dit, etxean Internet duteen Euskalteko bezeroentzat soilik (Banda Zabal Finkoa), Zeharkako zerak ez daude sartuta.

**logikeline**

943 31 86 11

San Francisco, 19 Tolosa



Banataile ofiziala

# Pertsonen bizimoduak naturan duen eragina aztergai, Tolosa Naturaldian

Natur jardunaldiak astelehenean hasiko dira Tolosa Naturaldia 2012 jardunaldiak. Tolosan astelehenetik ostirala bitarte proiektzioak, hitzaldiak eta mahai inguru bat izango dira. Topic zentroan egingo dituzte eta sarrera doan izango da.

**Imanol Garcia Landa**

*Ez gara merkantzia* izenburupean, datorren astelehenean hasiko dira Tolosa Naturaldia 2012 jardunaldiak. Tolosan astelehenetik ostirala bitarte proiektzioak, hitzaldiak eta mahai inguru bat izango dira. Topic zentroan egingo dituzte eta sarrera doan izango da.

Hilaren 28an, larunbatean, bokazio naturalista duten artistek eta taldeek Alkizan sortutako Urmara espazio esperimentalera bisita antolatuta dute. Jardunaldien helburua pertsonen bizimoduak planetarengan eta izaki bizidunen duen eraginari buruzko gogoeta egitea da.

Jardunaldiak atzo aurkeztu zituzten Ainhoa Iraola foru aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako zuzendariak, Hasier de los Rios Tolosako Udaleko Ingurumen, Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Turismo zinegotziak eta Shole Martin jardunaldien antolatzaileak. Aldundiaren eta Tolosako Udalaren laguntzarekin, besteak beste, antolatuta dira Naturaldia jardunaldiak.

Ainhoa Iraolak azaldu zuenez, «ingurumenaren babeserako benetako politika eraginkorrak» bultzatu nahi ditu foru aldundiak eta horretarako «beharrezkoa da guztion parte hartzea eta kontzientziatzea».

Bide horretan aldundiak oinarritzakoa ikusten du ingurumenaren ezagutza, eta «natur jardunaldiak horretarako tresna oso egokiak dira». Iraolak gaineratu zuenez, «gaur egungo gure bizimodu mantentzeko gure baliabide naturalak nola ustiatzen ditugun ezagutu eta honek arlo sozialan zein ingurumenean zer



Shole Martin, Ainhoa Iraola eta Hasier De los Rios, aurtengo Naturaldia jardunaldien aurkezpenean. HITZA

## ↓ Eskualdeko egitaraua

### TOLOSA

■ **Apirilak 23, astelehena.** Topic zentroan, 19:30ean, Yann Arthud-Bertrand-en *Home* filmaren proiektzioa. Jacqueline Gooffart izango ondorengo solasaldian.

■ **Apirilak 24, asteartea.** Topic zentroan, 19:30ean, *Natura, oreka, zorientasuna* hitzaldia Francisco Lozano Winterhalder-en eskutik.

ondorio dituen ezagutu behar da».

Hasier De los Riosek jardunaldien leloaren inguruan hausnarketa egin zuen: «Gero eta gutxiago dira merkantzia bezala sentitzen direnak, baina oraindik ere baditugu bere garaian tren hori hartu zutenak eta ezin jaitzita daudenak. Tren hori poliki poliki gelditzen doa, abiadura moteltzen doa, behintzat».

Koldo Saratxagaren esaldi bat aipatu zuen ere De los Riosek aurkezpenean: «Garai baten aldaketan gaude, ez aldaketa garai batean». Bestalde, Naturaldia dagoeneko 23 urte dituela nabarmendu zuen, eta Tolosan horrelako jardunaldiak izateaz «harro» daudela esan zuen. «Gure herriak naturarekin duen harremana garran-

■ **Apirilak 25, asteazkena.** Topic zentroan, 19:30ean, *El planeta libre* filmaren proiektzioa. Mario Rodríguez Vargas izango da ondorengo solasaldian.

■ **Apirilak 26, osteguna.** Topic zentroan, 19:30ean, mahai ingurua: *Zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto? Etorkizuneko gizarteaz eta bizieraz* izenburupean. Parte hartzaileak: Joseba Azkarraga, Jose Maria Hernandez eta Itziar Arkonada.

tzitsua da eta horrela izatea nahi dugu aurrerantzean ere», adierazi zuen De los Riosek.

### Araujo-‘Forges’ klasikoa

Tolosan eta Alkizan ez ezik, Zarautzen, Errenterian eta Donostiako Aquariumean antolatuta dituzte jarduerak. Tolosan egongo den asteleheneko saioan Jacqueline Gooffert GoodPlanet fundazioaren zuzendaria izango da, eta Yann Arthus-Bertrand zuzendari eta argazkilarian *Home* dokumentala aurkeztuko du. «Film horrek, Lurraren biodibertsitatea erakustez gain, gizakia planetaren oreka ekologikoaren iraupenerako mehatxua dela azaltzen du», esan zuen Shole Martinek.

Hilaren 24ean, asteartean, jasangarritasun gaietan aditua den Francisco Lozano Winterhalderek *Natura, oreka, zorientasuna* hitzaldia emango du. Bertan, hizlaria «gizakien eta naturaren artean hain beharrezkoa den oreka eta integrazioari buruz ariko da», azaldu zuen Martinek.

Asteazkenean, hilak 25, beste proiektzio bat emango dute: *El planeta libre*. Coline Serreauk zuzendariaren komedia futurista bat da filma. «Urrutiko planeta batean, bizimodu xume eta ekologiko bati esker, zibilizazio mailarik gorenera iritsi den gizartearen erakutsu den pelikulak», argitu du jardunaldien antolatzaileak.

■ **Apirilak 27, ostirala.** Topic zentroan, 19:30ean, hitzaldia: *¿Está cayendo el cielo sobre nuestras cabezas?* izenburupean, Joaquín Araujo eta Antonio Fraguas *Forges*-en eskutik.

### ALKIZA

■ **Apirilak 28, larunbata.** Urmara gune esperimentalera bisitaldia. 10:00etan elkartuko dira herriko plazan.

Mario Rodríguez Vargas Greenpeace Espainiako zuzendaria emanaldian izango da, ikus-entzuleen galderei erantzuteko.

Hilaren 26rako, mahai ingurua antolatuta dute. «Euskaraz izango da eta galdera bati erantzungo diote parte hartzaileak: Bizi kalitate gutxitu gabe, egokia ote da gutxiagorekin bizitzen hastea?», azaldu du Martinek. Joseba Azkarraga soziologian doktorea, Jose Maria Hernandez Kristina Enea fundazioaren zuzendaria eta Itziar Arkonada Basherrri taldeen dinamizatzailea eta Uztaro kooperatibako nekazaria izango dira solasaldian parte hartuko dutenak.

Ostiralean, dagoeneko Naturaldiako klasikoa bihurtu den hitzaldia izango da. Joaquín Araujo idazle eta naturalista hitz egingo du eta Antonio Fraguas *Forges* umorista grafikoak marrazkiak egingo ditu. *Zerua gure buruen gainera erortzen ari al da?* izenburua jarri diote solasaldiari.

Hilaren 28an Alkizan dagoen Urmara gune esperimentalera bisita antolatuta dute. Artearen eta naturaren arteko harremanari begiratzen dioten ikerlan eta ekimenak dira Urmararen oinarri. Bisitaldian izango dira egitasmoaren parte diren Koldobika Jauregi, Iñaki Epelde, Juan Barbe eta Inigo Azpiaz; hauez gain, Joaquín Araujo ere bertan izango da.

## ↓ Kirola Tolosan

### OSTIRALA

#### ARETO FUTBOLA

**20:45.** Eskolapioetan, hirugarren mailan: Hirukide Denak taberna-Umore Ona.  
**22:15.** Eskolapioetan, bigarren mailan: Hirukide Plomix-Ildiazabal.

### LARUNBATA

#### SASKIBALOA

**09:00.** Infantil mutilak: Take Bedaio-Ganbara.  
**10:30.** Infantil mutilak: Take-Gamon. Kadete mutilak, triki Take-Astigarra.  
**16:00.** Senior neskek: Take Aralar-Bera Bera.  
**18:00.** Nazional mailan: Bide Bide-La Peña.

#### ESKUBALOA

**12:00.** Infantil mutilak: Tolosa-Hondarribi.  
**16:00.** Tolosa-Hegialde.

#### ARETO FUTBOLA

**16:30.** Uzturpen, jubenil mailan: Laskorain-Erain.  
**16:30.** Eskolapietan, euskal liga mailan: Tolosala-UPV Alaba.  
**18:00.** Senior mailan: Laskorain-Debabarraena.  
**18:15.** Eskolapietan, euskal liga mailan: Eskolapioak K.E.-Uxoa F.S.

#### FUTBOLA

**09:30.** Kadete lehenengo maila mutilak: Tolosa C.F.-Texas.  
**11:00.** Infantil ohorezko maila mutilak: Tolosa C.F.-Aloña Mendi.  
**12:30.** Infantil lehenengo maila mutilak: Tolosa C.F.-Ostadar.  
**15:30.** Kadete neskek: Tolosa C.F.-Eibar.  
**16:00.** Berazubín, erregional ohorezko maila: Tolosa C.F.-Beti Ona.  
**17:30.** Junior ohorezko maila mutilak: Tolosa C.F.-Billabona.

### IGANDEA

#### SASKIBALOA

**10:00.** Mini mailan: Super Ekoeaso.

#### FUTBOLA

**09:45.** Infantil neskek: Tolosa C.F.-Lagun Onak.  
**09:45.** Alebin mutilak: Tolosa C.F.-Ordizia.

#### ARETO FUTBOLA

**11:30.** Uzturpen, hirugarren mailan: Pub Elorri-DPO BAO BAP.

#### ATLETISMOA

**10:00.** Berazubín, infantil mailako Gipuzkoako Txapelketa.





Santa Maria parrokiako musika kapera, Euskal Herriko erakunde musikalki zaharretarikoa da. HITZA

## Hainbat musikariren lana omenduko du Santa Maria elizako musika kapera

Igandeko meza nagusian errepertorio berezia eskainiko dute eta ondoren, bazkaria egingo dute

### Itzea Urkizu

Omenaldi eguna izango da datorren igandekoa, Santa Maria parrokiako musika kaparentzat. Azken 27 urteotan taldearen alde lan egin duten hainbat musikari eskerrak emango dizkiete.

Kaperako kideek azaldu dute-nez, «musikari hauek berebiziko

lana egin dute, eta ez zaie sekula behar bezala eskertu». Horrela beraz, bi unetan zaituko dute eskertza omenaldia. Batetik, igandeko meza nagusia ospakizun izango dute; 12:00etan hasiko da ekitaldia, eta Santa Mariako musika kapera musikaz lagunduko du meza. Ohiko errepertorioaz haratago, Felipe Gorriti eta Eduardo Mokoroaren hainbat obra eskainiko ditu taldeak.

Behin meza amaituta, berriz, bazkari legea egingo dute eskertza omenaldia behar bezala amaitzeko. Fronton jatetxean izango da bazkaria, eta bertan parte hartu nahi duen edonork 675 70 86 86

telefono zenbakira deitu beharko du izena emateko.

### Bost omenduri eskerrak

Tolosako Santa Maria parrokiako musika kapera Euskal Herriko musika erakunde zaharretarikoa da. Hainbat urtetan prestigiozko erakundea izan zen musikarientzat, eta Felipe Gorritik sekulkako iraultza sortu zuen taldea, musika tresna berriak sartuz nahiz hainbat obra konposatuz.

Gaur egun, 90 kide inguru ditu Santa Mariako musika kapera, abeslari, orkestra, organo jotzaile eta zuzendariarekin, eta erakun-

de musika hau bizirik mantentze horretan lan egindakoak dira igandean omenduko dituztenak.

Luis Maria Garcia Artetxe da omenduko dutenetako bat. 1988 eta 1993 urteen artean, musika kaperako maisua izan zen, eta bere zuzendaritzapean, hainbat obra berreskuratu zituen erakunde musikalki: Inazio Mokoroaren *Misa Orbis Factor*, Perosiren *Misa Eucaristica* eta Mozarten *Ave verum*. Era berean, kaperak garai hartan eskaini zituen bi kontzertu berezi zuzendu zituen; Felipe Gorritiren jaiotzaren 150. urteurrenako kontzertu eta zuzendariarekin, eta erakun-

Migel Zeberio, berriz, 1993 eta 2001 artean izan zen musika kaperako zuzendaria. Berak ere errepertorioa zabaldu zuen, baina Gorritiren obran jarri zuen bere arreta, lan horretan. Besteak beste, autorearen *Gran Misere* obra berrezarri zuen 1995eko Aste Santuan, eta Eduardo Mokoroaren *Misa a 3 y 4 voces y organo* berreskuratu zuen. San Joan jaietako elizkizunetan kaperak berritoki parte hartzea ere lortu zuen Zeberio, eta, azkenik, aipatzekoa da zuzendari izan zen denbora tartean musika arxiboa hobetzeko egin zuen lana ere. Duo Seraphin argitaletxeak Gorritiren eta Mokoroatarren obrak argitaratzea lortu zuen.

Inmaculada Egizabal izango da, igande honetan omenduko duten emakumezko bakarra. 1994 eta 1995 artean, musika kaperako zuzendaria izan zen zenbait hilabetez, Migel Zeberio Tolosatik kanpora zihola eta. Egizabal erakunde musikaleko gidari zela ospatu zuen organo berrituaren inaugurazioa, 1994ko martxoaren 13an.

2005ean hasi, eta iaz amaitu zuen Ander Letamendiak, Santa Mariako kaperako zuzendari bidea. Epe honetan, aldaketa nabarmenak izan dira taldean: abesbatzan kide berriak hasi dira, eta entseguak arautu ditu, aste beteko maiztasunarekin. Honakoak izan dira Letamendiak berreskuratu dituen obrak: Inazio Mokoroaren *Misa de la Coronatione*, batetik; bestetik, Gorritiren *Magnificat del Corpus*, *Motete de San Juan bautista*, *Misa en Do* eta *Motetes al Santísimo*.

Azkenik, Jose Arcelus Ibarzabal organo jotzailea izango da eskertza omenaldiko bosgarren protagonista. 1984tik, 2011ra arte aritu zen Santa Mariako organoa jotzen. Salustiano Balza zuzenduz, haren ordez hasi zen Arce-lus.

## Hirukideko ikasleek 'Hiru gabe bi' eskainiko dute Leidor aretoan

Batxilergoko zazpi ikasle ikasturte hasieran hasi ziren antzezlanaren prestatzen bi irakasleren laguntzaz

### I. Urkizu

Supermerkatu bateko hiru langile protagonista izango dira, Hirukide ikastetxeko hainbat ikasleek bihar eskainiko duten *Hiru gabe bi* antzezlanean. Leidor aretoan izango da gaur, 18:00etan. Doan ikusi ahal izango da lana.

Hirukideko Batxilergoko 2. mailako zazpi ikasleek antzerki talde bat osatu zuten ikasturte hasieran, eta bi irakasleren gidaritzapean euskarazko antzezlan bat prestatzen aritu dira orain arte. Antzezlanean, supermerkatu bateko kutxan lan egiten duten hiru emakume izango dira pertsonaia nagusiak, eta antzezlanaren umoretik joango da, komediaren generoa landuz.

Sarrera doan eskainiko dute Eroskiren laguntzaz, eta Hirukide Antzerki Taldeak tolosar guztiak gonbidatu ditu.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Triz3ps taldearen soul-funk doinuak izango dira Bonberenean

Talde donostiarrak, pasa den irailean argitaratutako diska aurkeztuko du, gaur, 22:30ean

### I. Urkizu

Javi P3z (Javier Vicente), Alberto Bosch eta Oriol Flores Bonbereneako oholtzan izango dira gaur, 22:30ean, Triz3ps taldeko proiektuarekin irailean argitaratu zuten diska aurkezten. 8 euro ordaindu beharko da sarrera.

Hiru musikariek ibilbide oparoa izan dute mundu honetan,

hainbat taldetako musikari izan baitira hirurak. Triz3ps-ekin, benetako doinu instrumentalen alde egin dute, elektronikaren kutsurik gabe. Makinen menpe dauden kontzertuetatik alde eginaz, inprobisazioarekin jotzen dute eszenatokian.



Triz3ps-eko kideak. HITZA

Proiektua Donostiako Victoria Eugenia aurkeztu zuten lehengoz, eta arrakasta nabarmena izan zuten.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Izozkailuak.** Bi izozkailu bertikal salgai daude. *No frost* motakoak dira biak, eta Lieber eta Bosch markakoak. Bakoitzak 250 euro balio du. Interesa duen edonork, dei dezala 610 34 86 03 telefono zenbakira.



**XIV ORDUAK** →

Egizabal Leitzako fisioterapeutaren gomendioetako bat alde zurreratik eta ondoren luzatzea da

**Eneritz Maiz** Tolosa / Leiza

Gutxi falta da XIV Orduetarako. Maiatzaren 27an izango da, eta Tolosak milaka lagun hartuko ditu. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak eguna iritsi bitartean, astero-astero mendizale baten elkarrizketaz gain, ibilbidea egiteko adituek ematen dituzten gomendioak edota XIV Orduekin lotutako albisteak argitaratuko ditu.

Hasteko, Ane Egizabal fisioterapeuta leitzarrarekin hitz egin du. Honelako ibilbide luzea egin ahal izateko nahitaezkoa izango du mendizaleak prestaketa egitea. Fisikoki prestatzeaz gain, elikadura zaintzea eta gorputza hidratatzea behar-beharrezkoa dira adierazi du Egizabalek.

Proba luze hauen aurrean, gazteetan hainbesteko garrantzirik ez badu ere, adin batetik aurrera, mediku eta erresistentzia azterketak eginak izatea komenigarria dela nabarmendu du. Proban bertan egarritik ez izan arren edan egin behar dela dio: «Ega-

# Ane Egizabal: «Gorputzari entzun egin behar zaio»



Oinetako egokiak izatea, eta orkatilak ongi lotuta eramatea komeni da. M.S.

ria izatean gorputzarentzat alarma bat pizten da, edan egin behar da. Neurrian jatea ere garrantzitsua da».

Buruarekin jokatu behar dela ere esan du: «Ordu asko dira, eta prestaketak garrantzi handia du. Bakoitzak bere erritmoa aurkitu behar du, eta bere gorputzari entzun egin behar dio. Zerbait arraroa sumatuz gero, erne».

Esan beharrik ez badago ere, arropa eta oinetako onak izateak

berebiziko garrantzia duela. Mendirako egokiak diren oinetakoak izan behar dira. «Zola ona izan behar harko dute, eta orkatilak ongi lotuta eramane behar dira», gaineratu du. Jende askok orkatilako bihurrituak izaten ditu. Haizea, eguzkia, hotza, ... dira ibilbide hauen ezaugarriak eta beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira: «Mendian edozein unetan tenperatura aldaketa handiak izaten dira, eta beti hartu behar

dira kontuan kremak, bisera, betaurrekoak, eurritakoak, aldatzeko arropa, ...», dio Ane Egizabal fisioterapeutak.

Botika ontzia eramatea ere beharrezkotzat jo du, eta ohiko zaurien artean oinetan babak ateratzea dagoela gogoratu du. «Inoiz ez da baba zanpatu behar, eta tapatu egin behar da ireki baino lehen. Etxeko erremedioen artean, batzuk, baselina krema ematen duten behatz guztien artean, eta

horrela urradurak ekiditen dituzte», azaldu du.

**Baten ordez, bi makila hobe**  
Bizarreko mina saihesteko berriz, «makila baten ordez, hobe bi erabiltzen badira. Horrela gorputzeko pisua banatu egiten da, eta bizkarrak, belaeak eta gerriak ez dute hainbeste sufritzen». Motxila edota gerriko poltsa ondo lotuta eta neurrira jarrita izatea gomendatu du. Ibilbidean asfaltoak izateak asko zailtzen du, eta malda handiak sigi-sagan jaisteak laguntzen duela dio. Fisikoki prestatuta egoteak ez du esan nahi ibiltaria proba egiteko gai denik: «Erresistentzia izatea ez da nahikoa, hankak eta oinak dira prestatuta eduki behar direnak».

**Ezinbestekoa da luzatzea**  
Ibilaldia hasi aurretik eta amaitu ondoren egin beharreko lana luzatzea da. «Ezinbesteko egin beharra da luzatzea, aurretik egiten direnekin gorputza prestatu egiten dugu, eta, batez ere, ondoren, hainbeste orduan ibili ondoren muskulu guztiak askatzeko».

Mina sentituz gero berriz, «hamabost bat minutuz izotza jartzea komeni da». Aldiz, mendi ibilaldian zehar kalanbreak, botatzeko gogoa, ezohiko nekea, ... sentituz gero, «burugogorkeria utzi eta gelditu egin behar da».



**Tolosan etxe adosatua salgai:**  
eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu **678 267657** telefono zenbakira.



**MARIEN ZUHAIZTIA**

3 ZIRKUITU  
32 JOKO  
10 TIROLINA

TXINDOKIKO ITZALA



**Leire Zumeta** • Mendizalea

## «Ezagutzen ez dudanez, esperientzia bizitzera noa»

**E. Maiz** Anoeta

Maiatzaren 27an, Leire Zumeta (Anoeta, 1986) ere XIV. Orduko martxa egiteko prest egongo da. Milaka pertsonen artean, lehen aldiz egingo du ibilbidea lagunekin batera.

**Nolatan animatu zara aurten XIV Orduko martxa egitera?**

Duela hiru urte edo hasi ginen mendi martxetan parte hartzen. Hemendik lau urteetara ez dakigula nola izango garen, eta aurten kuadrilan parte hartzea animatu gara.

**Orduan mendian ibiltzeko ohitura baduzu.**

Aizkardiko martxarekin hasi ginen duela hiru urte, eta harrez gero Bermeo, Urretxu, ... batzuk eginak ditugu. Aurten tartean sartu dugu XIV Ordukoa. Orain artekoan egin ditugun ibilbideak motzak izan dira, eta azken asteetan, prestatu ahal izateko, luzeak egingo ditugu. XIV Orduko martxarekin bukatzeko asmoa dugu, eta ea zer moduz ateratzen zaigun!



HITZA

50 kilometroko ibilbideak egingo ditugu. Egia da, eguna iritsi arte ez ditudala 70 kilometroak egingo, baina nik uste dut ez dudala bukatzeko arazorik izango.

**Kuadrilan animatu zarete beraz.**

Bai, sei bat lagun izango gara, neskak eta mutilak.

**Aldez aurretik ezagutzen zenuen XIV Orduak?**

Egia esan ez nuen gogoan, eta ez nekien lau urtetik behin egiten zenik. Iazko urtera arte ez nuen bere berrit askorik, ez nekien ibilbidea zein duen ere.

**Eguna bera nola aurreikusten duzu?**

Ea gorputzak nola erantzuten duen, eta zein eguraldi egiten duen. Askok baldintzatu dezake eguraldiak. Beldurrik gehien babaren bat ateratzeak ematen dit, edo nahiz eta fisikoki ondo sentitu, egunean bertan, martxa motxagoetan sentitu ez dudana molestiaren bat edo izatea. Mila gauza izan daitezke. Ezagutzen ez dudanez, esperientzia bizitzera joango naiz, eta ea ondo ateratzen zaigun guztioi.

• anoetaldea@hitza.info

Hamaika eta bat irakurleren irudimena Asteasuko kaleetan barrena ibilia izango da, 'Obabakoak' liburuko lerroen ondorioz. Elizmendi auzoko muinoak eta plaza inguruak bat egiten dute Ernioko mendi magalean.

# Muinotik plazara, Ernioren magalean

**Itzea Urkizu** Asteasu

**B**ernardo Atxagaren erreialismo magikoak mundu zabalera begira jarri zuen Asteasu 1988. urtean. *Obabakoak* liburuaren orrialdeetatik. Ilobate, Muino, Pe-pane, Arbe, Legarra, Zumargain, Etxeberri, Ostatu nahiz Montse etxeen deskribapen zehatzak egin zituen idazle asteasuarrak, eta bere jaioterriko parajeetan kontatutako istorioak, munduko beste 25 hizkuntzetara itzuliak izan dira.

Ernioren magalean dagoen herrixkak, ordea, 1375eraino atzera egin behar du, bere lehen alkate-tza dokumentuak ikusteko.

Herrira iritsi bezain pronto, Asteasuko bi gune nagusietarako bige-gurutzera ikusi ahal izango da. Eskuinera hartu, eta Elizmendi auzorako aldapa ikusiko du ibiltariak, tontorrera igotzeko. San Pedro eliza da muino txikiaren jabe. Latindar gurutzearen forma du eraikinak, eta estilo erromani-koaren zantzuak ditu ate nagusiak. Erretaula, berriz, Juan de Antxietak zizelkatu zuen, eta barroko estiloari dagokio. Nabarmentzekoa da San Pedro elizak barruan duen bataiatzeko pantea; harri osokoa da, eta Asteasuko armarrria tailatuta du.

Kanpandorrea badu halako balkoi moduko bat, eta hain zuzen ere hortik jaisten da urtero, apirila amaieran, Simon izeneko

personaia; Elizmendi auzoko jaiei hasiera ematen diete, modu honetara, asteasuarrak.

San Pedro elizako muinoaren inguruan, hainbat etxe eta haur eskola ere badira. Eliza atariko eskilarak jaitsi eta kalean behera jarraituz gero, berriz, Santa Cruz basilizara iritsiko da bisitaria, XIV. mendeko Ama Birjinaren irudi gotiko bat barruan izan zen, eta, gaur egun, Donostiako Elizbarrutiko Museoa dago irudia. Ermita honen aldamenean, duela aste beste inauguratu zuten herriko gazteenek, Asteasuko Gaztetxea.

Asteasuk, ordea, badu beste gune bat ere, udaletxea eta plazaren inguruan. Elizmenditik behera errepidea hartuz gero, Agoteena etxearen aldamenetik igaro eta errepidea gurutzatuta, Mikalera Elizegi kalera joan daiteke ibiltaria. Bidegorriari jarraituz, erreka ertzean osteratxo polita egiteko aukera eskaintzen du bidexkak, baserri itxurako etxex osatutako gunea inguratuz.

Errekari jarraituz, Zilar kalean eskuinera hartuz gero, Lege Zaharren plazara helduko da ibiltaria. Bertan dago udaletxea. 1760an eraiki zuen Jose Lizardik. Eraikinaren aurrealdean, hiru arkuko arkupea eta bi balkoi handi ikus daitezke, erdian Asteasuko armarriarekin.

Plazaren erdialdean, berriz, Pello Errotari eskainitako monolitoa dago. Izenez Pedro Jose Elize-

gi, eta ezinez Pello Errota zena, 1840an jaiotako Asteasun. Lanbidez errotaria zen arren, bertsolaritzaren bidez ezagun egin zen, eta lanbide osagarri moduan erabili zuen bat-batekoa. Umorea zuen hari nagusi bertsotan hasten zenean, eta, gaur egun, ere esagun izaten jarraitzen dute Txirrita eta bere arteko bertso batzuek. Hone-lan esan zion asteasuarrak Txirritari: «*Ari naizela, ari naizela/hor ikusten den Txirrita. /Eta zein ez da harrituko gaur/gizon hori ikusita? /Dudarik gabe egina dio/andregaiari bisita. /Oso dotore etorri zaigu/bi alkandora jantzita*». Bertsolaria Argentinara ere joan zen 1895ean, hara joandako euskaldunei abestera. 1919an hil zen, Asteasun bertan.

Pello Errotaren eskulturarekin parez pare, Asteasuko trikitilari bati eskainitako beste monolitoa dago. Eleuterio Tapia 1926an jaiotako Asteasun, eta trikitilarien leinu bateko kidea izan zela esan daiteke: Juanito Tapia zuen anaia, eta bere semea da Juan Tapia; Joseba Tapia, berriz, asteasuarraren iloba da. Bere garaiko hainbat trikitilari jotzen erakutsi zien Tapiak, eta hainbat pieza sortutakoa da.

Plazatik Erreka bailarara abiatuz gero, Zelatungo lepoa aurrez aurre ikusi ahal izango du ibiltariak. Egindako bidean atzera egin, eta Lege Zaharren plazara itzuliz amaituko da txangoa.

• [iurkizu@hitza.info](mailto:iurkizu@hitza.info)



Simonen jaitsiera elizako kanpandorretik egiten dute, urtero. I. URKIZU



Pello Errota bertsolaria omentzen duen monolitoa, plazan. I. URKIZU



## DATUAK

- **Luzera.** 6.000 metro.
- **Ezaugarriak.** Bira muinoan eta joan-etorri bat.
- **Hurbilketa.** Renfe trenean Villabonaraino joan behar da, eta handik autobusez iritsi behar da, gero, Asteasura.
- **Hasiera-bukaera.** Asteasuko autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Elizmendi auzora igo eta jaisteko dagoen malda.
- **Azalpenak.** Hiri-ibilaldia Asteasuko kaleetan barrena, eta Asteasu errekatik joan-etorria.
- **Interesguneak.** San Pedro eliza, Santakruz ermita, udaletxea eta naturgunea bera.







Amasa-Villabonako udalbatzak, ohiko osoko bilkura egin zuten herenegun. A. IMAZ

## Villabonako udalbatzak Asuncion klinika publiko bilakatzea eskatu du

Atez ateko hondakin bilketa sistemaren aurkako mozioa atzera bota dute Bilduko udal hautetsiek

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Villabonako udalbatzak Asuncion klinikaren gaia aztertu zuten herenegun, osoko bilkuran. Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aldeko koordinakundeak mozioa aurkeztu zuen udaletxean, bilkuran eztabaidatua izan zedin, eta Bilduren eta EAJren babesarekin aurrera atera zen. PSE-EEren zinegotzi bakarrak, Maria Luisa Arijak, aurkako botoa eman zuten. Mozioan besteak beste, Asuncion klinika publiko egitea eskatzen da, hori bideratuko lu-

zuen mahai anitz bat sortuz. Klinikaren ibilbidea ikertzea ere eskatu zuen udalbatzak, ogasunarekin zorrik baduen edo ez argitzeko.

Osoko bilkuran beste bi mozio ere aurkeztu zituzten. Lehenik, Bildurena eztabaidatu zuten, Bateragune kasuaren ingurukoa. Bertan, besteak beste, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacintoren askatasuna eskatu zuten. Bozketa garaian, EAJren eta Bilduren zinegotziek babesa eman zioten mozio honi. PSE-EEko Arijak berriro ere aurka bozkatu zuen, «gustukoak ez izan arren, epaitegien erabakiak onartu eta bete egiten dituztelako PSE-EE alderdian».

Hirugarren mozioa, atez ateko bilketa sistemaren ingurukoa, PSE-EEren ordezkariek aurkeztu

zuen. Maria Luisa Arijak sistema honen aurkako jarrera azaldu zuen, eta hori argudiatzeko lehen pertsona hitz egin zuen. PSE-EEren ordezkarieren arabera, azken astean atez ateko sistemak jarzten dituen urratsak bete zituen bere etxean, eta horrek sortutako zalantzak azaldu zituen bilkura aretoan. Amaieran, bosgarren edukiontzian alde egin zuen. EAJren hiru zinegotziek mozioaren alde egin zuten, baina Bilduk gehiengo duenez udalbatzan, mozioa ez zen aurrera atera.

Olaederraren inguruan ere hitz egin zuten osoko bilkuran; kiroldegia Zizurkil eta Villabonaren artean kudeatzeko hitzarmena izan zuten hizpide. Alde guztiak alde daudenez 10 urteko hitzarmena sinatuko dute eta bitanle kopuruaren arabera banatuko dituzte Olaederrako gastuak.

## → Laburrak

### VI. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa gaur hasiko da

**ADUNA** › Asvinenean antolatzen duen Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren seigarren edizioa gaur jarriko dute martxan. 22:30ean hasiko da lehen gala, eta bertan sei talde egongo dira. Hiru emanaldi eta gero, atsedendia egingo dute, eta bertan bi artista gonbidatu ariko dira giroa berotzen: Marta eta Wilmar gitarra eta ahots bikotea. Asvineneatik ikuskizuna hastera doala azaldu dute, eta eskualdeko herritarrek bertara gonbidatu dituzte.

### Herriko festak antolatzeko bilera, astelehenean

**ANOETA** › Jai batzordeak bilera egingo du hilaren 23an, astelehenean. Herriko festak antolatzeko helburuarekin elkartzeko dira udaletxean, 19:00etan. Bertan, kartel lehiaketako irabazlea aukeratu dute, eta jaiak azken ukituak emango dizkiete. Udaletik Anoetako elkar-te eta herritar guztiak gonbidatu dituzte jai batzordean parte hartzera.

### Liburutegiaren gela berria inauguratuko dute

**ALKIZA** › Apirilaren 23an, astelehenean, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Alkizako liburutegiak, gela berriaren inaugurazioa egiteko aprobetxatuko du hilaren 23a. Egitarau berezia prestatu dute horretarako: 17:00etan gela berria, 5 urtetik gorako umeentzat Ilustrazio tailerra egongo da, Ainarra Azpiroren eskutik. Ordu berean, 0-4 urteko umeentzat ipuin kontalaria ere jarri dute, Kamishibai txinatar teknikan oinarritutako ipuinak entzungo dituzte txikienek.

### Eragileek diru laguntza eskatzeko aukera dute

**ZIZURKIL** › Aisialdia, kirola, kultura, hezkuntza, gazteen eta euskararen inguruko ekitaldien diru laguntzak eskatzeko aukera hilaren 30ean amaitzen dela jakinarazi du Zizurkilgo Udalak. Eskaera, udaletxeko Erregistroko sarreran utzi behar da behar bezala beteta, 09:00etatik 14:00etarako tartean, eta astelehenetik ostiralera. Bete beharreko inprimakia udaletxean eskura daiteke, eta gastu eta diru sarreraren aurrekontua zehaztu beharko da bertan. Elkarrekin batek ekimen bat baino egiteko asmoa baldin badauka, bakoitzeko eskari orri bat aurkeztu beharko duela azaldu dute Zizurkilgo Udaletik.

### 1200. urteko konkistaren inguruko hitzaldia

**AMASA-VILLABONA** › Aritza Kultur Taldeak, udalaren laguntzarekin, Nafarroako konkistaren inguruko hitzaldiak antolatu ditu. Lehena hilaren 17an izan zen, Floren Aozen eskutik. Bigarrena eta azkena, 1200. urteko konkistaren ingurukoa izango da, hilaren 24ean, asteartearen. Anjel Rekalde izango da hizlaria, eta hitzaldia Mintzolan eskainiko du, 19:30ean.

### ‘Eta zer? II’ eta ‘Intocable’, Gurea antzokian

**AMASA-VILLABONA** › Gurea antzokia ikuskizunetz jantzi dute da bihartik astelehenera bitartean. Alde batetik, zinea egongo da, eta, bestetik, antzerkia. Bihar, etzi eta astelehenean *Intocable* filma ikusteko aukera egongo da, 22:15ean, 19:30ean eta 21:30ean, hurrenez hurren. Astelehenean, Villabonako eta Zizurkilgo LHko ikasleentzat Dar-Dar produkzioarekin kideek, *Eta zer? II* antzezlan eskainiko dute, 09:30ean eta 11:00etan.

### ‘Enjoy english’erako matrikula epea zabalik da

**HEZKUNTZA** › Gurasoak eskatuta udako oporraldian ingelezko udalekuak antolatu ditu Zizurkilgo eta Villabonako Jesusen Bihotza ikastolak, HH5 urtetik LH 6. mailara bitarteko ikasleentzat. Udaleku hauetan ikasleek, ingeles jatorriko begiraleekin ingelera ikasiko dute eta baita praktikatu ere, baina beti ere «modu dibertigarrian». Ekainaren 27tik uztailaren 24 arte iraungo dute udaleku hauek, eta ordutegia 09:30etik 13:30era izango da Txermingo Ikastolan. Matrikula epea apirilaren 27ra arte zabalduko dago, ikastolako idazkaritzara deituz, hau da, 943 69 23 21 telefonora, edota ikastolako webgunean izena emanez: [www.jesusenbihotzai-kastola.com](http://www.jesusenbihotzai-kastola.com).

### Antzerki Astea, erakusketa eta musika

**ZIZURKIL** › Udalak sustatzen duen aisialdi gidaren barruan, ondorengo egunetan hainbat ekitaldi aipatzeko behar dira. Alde batetik, X. Antzerki Astea hilaren 23an, astelehenean, hasiko dela azaldu dute udaletik. Bestetik, San Millan eskolako ikaslearen erakusketa, Iriarte kultur etxean, gaur amaituko dela aipatu behar da, artearen eta biografiaren ingurukoa. Azken hitzorduari dagokionez, hurrengo astelehenean, hilaren 23an, Loatzeko musika eskolako Zizurkilgo ikasleek musika emanaldia eskainiko dute Atxulondon, 17:30ean.

## Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu da bihar

12-15 urteko neskek Soinu Zahar Txapelketan lehiatuko dira; mutilek aurreku dantzatu dute

**A. Imaz** Amasa-Villabona

Oinkari dantza taldeak eta Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrek Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketaren jardunaldia antolatu dute Villabonan, bihar, B sailean. 12-15 urte bitarteko 34 dan-

tzari lehiatuko dira Gurea zine- man, 16:30etik aurrera.

Mutilek Aurreku Txapelketan parte hartuko dute, desafioa eta eta agurra dantzatu; neskek Soinu Zahar Txapelketan ariko dira, hondarribi eta upelategi zortzikoak dantzatu. Gurea zine- man, herriko 10 dantzari inguru egongo dira.

Eneko Arteaga Villabonako dantza taldeko kidearen esanetan, txapelketa hau antolatzea «nahiko erraza» izan da, izan ere, «Euskal Dantzarien Biltzarretik egitura nahiko finkatua izaten

dute». Arteagaren esanetan, «txapelketa kutsua duenez, aurkakoak eta aldekoak daude. Dantzari- rien maila hobetzeko balio du gure ustez, eta horrela hartzen dugu lehia hau».

Azkenik, inguruko herritarrei Gurea zinemara agertzeko eskatu die Oinkariko kideak: «Larunbat arratsaldean izanda, jendeak etortzeko aukera gehiago izango duelakoan gaude. Euskal Herri- ko, eta, batez ere, Gipuzkoako dantzari gazteak ikusi, animatu eta txalo batzuk jotzeko aukera pare- gabea egongo da».

# Ez du favorito garbirik Olsagasti eta Zalduaren arteko aizkora apustuak

Tolosako zezen plazan etzi eguerdian izango den apustuak ikusmin handia sortu du; jende ugari espero dute

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Parekatuak. Ez dago favorito argirik Joxe Mari Olsagasti eta Xabier Zaldua aurrez aurre jarriko dituen aizkora apusturako. Ikusmin handia sortu duela argi dago, izan ere, igandean 1.000 lagunetik gora espero dituzte Tolosako zezen plazan 12:00etan hasiko den desafioan.

Zumarragako aizkolariak 20 kanaerdiko ebakiko ditu, eta Igel-dokoak, berriz, 22. Horretan datza igandeko apustuak, norik azkarrago bukatu lan hori. Lehen amaitzen duenak 6.000 euro irabaziko ditu, alde bakoitzak kopuru hori jarri baitu jokoan.

Azken hilabeteetan hainbat apustutan parte hartu du 34 urte dituen Xabier Zalduak. Azkena, Joseba Otaegi zizurkildarraren aurka irabazi zuen aizkora eta lasterketa batzen zituen proba.



Olsagasti, Hernialden 2010ean eginiko apustu batean, eta Zaldua, iaz, Otaegiren aurkako deman. HITZA



Joxe Mari Olsagastik 53 urte ditu, beraz, hori litzateke lehen-dabiziko desberdintasuna. Zalduak gaztetasuna badu, ordea, Olsagastik eskarmentua du, makina bat apustu eta txapelketatan aritutakoa baita.

Bata eta bestearen ezaugarriak jakinda, badirudi zaleek ez dutela oso argi desafio honetan nor ariko den ondoen. Tomas Armendariz

Kantabriko tabernaren jabeak azaldutakoaren arabera, apustuak «oso berdinduta» daude. «Giro oso polita eta garbia nabari da, adin guztietako jendea ari delarik bataren zein bestearen alde-tan apustua egiten».

Faborito garbirik ez dagoen arren, Armendarizek argi du igandean «oso giro ona» nagusituko dela Tolosako zezen plazan.

«Sarrera ugari ari dira saltzen, eta orain arte ikusitakoaren arabera, 1.000 lagunetik gora egongo direla dirudi». Igandekoa bezalako desafioak egun gehiagotara hedatu beharko liritekeela ere gehitu du: «Tolosa betidanik izan da herri kirolen hiriburu, eta gisa honetako aizkora proba gehiago antolatu beharko liriteke, San Joan jaietan, esaterako».

## Batzordeen bilera izango da, astelehenean, Amezketako udaletxean

**I. Terradillos** Amezketako

Hirigintza, kultura, ekonomi-kontu berezien eta ingurumen batzordeen bilera egingo dute datorren astelehenean, hilaren 23an, 20:30etik aurrera, Amezketako udaletxeko batzar aretoan.

Bertan, besteak beste, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela arautzen duen udal ordenantza eta osasun publikoari buruzko mozioaren berri emango dute.

## Zero Zabor Eguna antolatu dute biharko, Villabonan eta Zizurkilen

**I. Terradillos**

Tolosaldea Zero Zabor taldeak antolatutako Zero Zabor Asteak igandean bukatuko du astelehenean hasi zuen bidea. Eskualdeko hainbat herritan hitzaldiak eta ikus-entzumezkoak egin dituzte «herritarrei hondakinen inguruko informazio garbia emateko helburuz». Hala, gaur muralaren margoketa egingo dute Lizartzako plazan, 20:00etatik aurrera. Bihar, berriz, Zero Zabor Eguna egingo dute Villabonan eta Zizurkilen. 11:00etan haur jolasak eta trikipoteoa izango dira, eta 14:00etan bazkaria. Ondoren, trikipertsopoteoa egingo dute, eta 23:00etan Laket taldearen kontzertua izango da. Igandean, bestalde, Alegia-Asteasu bizikleta martxa egingo dute. 11:00etan Alegiako plazatik abiatuko dira, Asteasun amaitzeko.

# Eragileen elkarlana sustatu nahi du udalak

Ibarrako talde guztiak gonbidatu dituzte hilaren 24an, kultur etxean, egingo duten bilerara

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Ibarrako Udalak herriko eragile eta taldeen parte hartzea eta elkarlana bultzatu nahi ditu, «proiektu eta ekimenak guztien artean sortzeko». Bada, helburu

horrekin aurrera egiteko, herriko eragile eta taldeak bilerara deitu ditu, datorren asteartean, hilaren 24an, 19:00etan, Ibarrako kultur etxean.

Udaletik adierazi dutenez, «urteko egutegiari begiratuta, bistan gelditzen da Ibarra ekintza asko antolatzen direla urte osoan, kultura arlokoak, kirol arlokoak zein gastronomikoak; ez da horren agerian geratzen, ordea, horrek guztiak berekin dituen lan eta nekeak».

Hori dela eta, udalak «dinami-

ka berri bat» jarri nahi du abian, eta eragileei eta taldeei laguntza eskaini nahi die beren ekimen eta programak aurrera eramateko. Halaber, guztien parte hartzea eta elkarlana sustatu nahi ditu, «norik bere kasa gauzatu ezin dituen proiektu eta ekimenak denon artean egin ditzakegulako».

Adibide bezala, Alurr dantza taldeak uztailean antolatu nahi duen kultura gutxituen elkartrukea aipatu du udalak. Elkartruke honetan, euskaldunek, katalanek, sahararrek eta Rapa Nuiko-

ek hartuko dute parte, denera 80 lagun inguru. «Lan handia du hau guztia antolatzeak eta, horretarako, herriko eragile eta taldeen laguntza beharrezkoa izango da», diote Ibarrako Udaletik.

Gauzatu asmo duten elkartrukearen azalpena emango dute asteleheneko bileran, eta elkartruke horretan herriko talde eta eragileen parte hartzea zein eremutan eta nola izango den aztertuko dute.

Udalak herriko talde guztiak gonbidatu ditu bilerara.



Hilberriak eta urteurrenak

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**JEXUX  
ARRUTI  
ORBEGOZO**

Dabon Agintean alagunak.

Gaur zerbait dabon ekingo dugu Jexux, lester ekingo dugu itxar gure izaberekin. Eta hor goren, bai elkarren artean, bai elkarren artean, bai elkarren artean, bai elkarren artean, bai elkarren artean.

Itxar: Aizola, Berrueta eta Ariz; Izar: Izar, Izar, Izar eta Izar; Itxar: Itxar, Izar eta Izar; Izar, Izar eta Izar; Itxar eta Izar; Errentz: Izar.

ORR, 2012ko apirilaren 20a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Leaburu-Txarama.** Festak antolatzen hasteko bilera gaur, 19:00etan, Leaburuan.
- **Lizartza.** Zero Zabor astearen barruan gaur, mural margoketa, 20:00etan.
- **Berastegi.** Hondakinen eta uraren inguruko batzarra gaur, 20:30ean, eskolako ganbaran.
- **Amezketeta.** Amezketako Udalak gazteleku eta antzeko nerabeentzako zerbitzuak definitzeko irekitako prozesu parte hartzailearen lehen bilera gaur, 17:00etan, kultur etxean.
- **Villabona.** Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa bihar, 16:30ean, Gurean. Sarrera doan.
- **Villabona-Zizurkil.** Zero Zabor astearen barruan bihar, Zero Zabor Eguna Villabonan eta Zizurkil. 11:00etan haur jolasak; ondoren, trikipotea; 14:00etan bazkaria; ondoren, triki-bertsopotea; eta 23:00etan, Laket taldearen kontzertua.
- **Alegia-Amezketeta.** V. Ñañarri

- Rallyesprint proba, bihar, 15:00etatik aurrera. Bukaera 19:00etan, Amezketako plazan.
- **Leitza.** XXXIV. Herri Krosa bihar, 16:15etik aurrera.
  - **Ikaztegieta.** Eskola txikietako gurasoei zuzendutako jardunaldiak, bihar, 09:30etik aurrera.
  - **Alegia-Asteasu.** Zero Zabor astearen barruan etzi, igandean, bizikleta martxa. 11:00etan aterako dira Alegiako plazatik eta 11:30ean iritsiko dira Tolosako Trianguloa plazara; 11:45ean Anoetako plazan izango dira eta 12:00etan, Villabonako plazan. Martxa 12:30ean amaituko dute Asteasuko plazan.
  - **Tolosa.** Txantxangorri-Kirikinon aisialdi taldearen 25. urteurrenko jaiak, bihar, 18:00etan eukaristia, Hirukideko elizan; 19:00etan kalejira eta poteoa txarangaren laguntzarekin; eta 21:00etan afaria.
  - **Leitza.** Trintxerpeko Itsastarrak mendiko Finalista Eguna antolatu du etzirako, igandea. Hainbat txapelketatan

sarituak izan diren elkarteko bazkideak emenduko dituzte eguerdian, Aritz bailarako Zuparrobi gailurrean. Beherako bi-dea Santa Krutz ermitara joateko bidetik egingo dute, eta 14:00eak aldera, bazkaria egingo dute, Musunzar jatetxean.

### MUSIKA

- **Tolosa.** Xabier Zeberio eta Pello Ramirezen ONproiektuaren aurkezpen kontzertua, gaur, 20:30ean, Topic zentroko aretoan, doan.
- **Tolosa.** Bonberenean gaur, Trizeps taldearen kontzertua, 22:30etik aurrera.
- **Anoeta.** Gazte Asanbladak antolatutako kontzertua gaur, gaztetxean, 23:00etan; Jostion, Gaueko Itzalak eta Mendeko Itxua.
- **Tolosa.** Bonberenean bihar,

Anai arrebak eta SHH taldeen kontzertuak, 22:30etik aurrera.

### ANTZERKIA

- **Aduna.** Asvინeneako VI. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa hasiko da gaur. Lehen kanporaketa 22:30ean hasiko da eta sei talde ariko dira: Retama, Aldatzen Laguntzen atzerki taldea, Pop Corn, Bastards from a basket (3D), Zapla! Productions eta Vantare. Antolatzaileek Asvინeana ezagutzea animatu nahi ditu herritar guztiak, eta saioak hasi aurretik ere bertan zerbait hartzeko aukera badagoela gogoratu dute.
- **Zizurkil.** X. Antzerki Astea hasiko da astelehenean, hilak 23. 09:30ean eta 11:00etan Dar-Dar produktioak taldearen *Eta zer?* emanaldia izango da Vi-

llabona eta Zizurkilgo 6-12 urte bitarteko gazteentzat, Gurea antzokian.

### ZINEMA

- **Tolosa.** Leidor aretoan gaur, *Rec3, Génesis* filma, 22:30ean. Bihar pelikula bera ikusi ahal izango da 19:30ean eta 22:30ean. Bi egun hauetan, filma baino lehen, Filmazpiteko film laburrak eskainiko dituzte. Igandean haurrentzako *Lotte 2* ikusi ahal izango da 17:00etan, eta *Los Idus de marzo*, 19:30ean eta 22:00etan. Ikuslearen egunean, astelehenean, *Los Idus de marzo* ikusi ahal izango da, 22:30ean.
- **Villabona.** Gurea aretoan asteburuan *Intocable* ikusi ahal izango da; bihar 22:15ean, etzi 19:30ean, eta astelehenean, ikuslearen eguna, 21:30ean.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

### BIHAR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 45.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

### ETZI

- **Ibarra.** L. Lejeune,

Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

### ETZIDAMU

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak



### Zorionak!

**Abaltsiketako Joakin eta Maria.** Apirilaren 22an ezkondu zineten duela 64 urte. Ondo-ondo pasa zuen eguna familia guztiarekin!



**Zorionak Oier!**  
**Oier Aramendia (Tolosa).** Gaur 4 urte. 4 muxu potolo aita, ama, Irati eta Enekoren partetik!

AGURRAK  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak



harpidedunak  
TXOKOA hitza

## saridunak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

■ **Jon Iraola Barrio (Ibarra)**

**LAGUN ARO GBC**  
**Fiact Mutua Juventut**  
saskibalo partida

Apirilak 22, Igandea  
18:00etan  
Donostiako Ilunben

Sarrerak HITZaren egoitzan izango dituzue



## sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

■ **Arantxa Karrera (Amezketeta)**  
■ **Arantxa Colomo (Alegia)**

**RALLYESPRINTA**

Apirilak 21 • Larunbata  
Irteera: 15:00etan Alegiatik Amezketara

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

